



**2011KO IRAILAREN 2KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako irailaren bian, arratsaldeko ordubi terdian, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Haizea Mendia Insausti zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2011ko uztailaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 14 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HEMEZORTZI EURO ETA HAMALAU ZENTIMO (53.518,14 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- 9.1 EGIKARITZE UNITATEAREN BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIOAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9 -Erdigune- H.J.A.ko 9.1. E.U.ren borondatezko birpartzelazioa Ordiziako Ignacio Pagola Villar notarioaren aurrean 2011ko ekainaren 24an izenpetutako eskritura bidez formalizatu zen. Eskritura honek notarioaren protokolo 807 zbk.a darama.

2011ko ekainaren 28ko alkatetzaren ebazpen bidez dokumentua jendaurreko erakustaldian jartzea ebatzi zen.

Dokumentua jendaurreko erakustaldian egon da hogeit eguneko epean iragarkiak 2011ko uztailaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2011ko uztailaren 1eko Berria eta 2011ko uztailaren 2ko Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratu direlarik.

Jendaurrean egon den denboraldian ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti honen aurrean eta espedientea aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere pardaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- 9.1 E.U.ren borondatezko birpartzelazioa behin betikoz onartzea.



2.- Behin onarpena administratiboki irimotasunera iristen denean, eskritura eta dagokion egiaztatzea Tolosako Jabetza Erregistrora bidaltzea bere inskribapenerako.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Joan den hilean, hau da, abuztuan, tokiko gobernu batzarraren bilkurarik ez zela egingo aurrikusita eta gizarte zerbitzuetako laguntzak oso beharrezkoak diren beharrei erantzuten diela kontutan izanda eta hauek denboran asko ez luzatzearen, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenaren aurrean, alkatetzaren ebazpen bidez ondoren xehetzen diren erabaki hauek hartu ziren eta orain tokiko gobernu batzar honen aurrera ekartzen dira, honek ebazpen hauen inguruko berrespenean erabaki dezan.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-018 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuak ordaintzeko hilean 192€ko dirulaguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %60 da.

- 11-01-021 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuak ordaintzeko hilean 256€ko dirulaguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.

Udal tasak ordaintzeko laguntzak.-

2010 urteko udal tasen arloko laguntzen inguruan eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, udalak daukan ordenantzaren aplikazioz, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- Ondorengo dirulaguntzak onartzea:

IZEN ABIZENAK	EHUNEKOA	DIRULAGUNTZA
ESP.ZBK. 11-16-01	% 100	260,57 €
ESP.ZBK. 11-16-02	% 75	99,14 €
ESP.ZBK. 11-16-03	% 75	101,93 €
ESP.ZBK. 11-16-04	% 75	136,05 €
ESP.ZBK. 11-16-05	% 100	132,19 €
ESP.ZBK. 11-16-06	% 75	122,44 €
ESP.ZBK. 11-16-07	% 50	130,10 €
ESP.ZBK. 11-16-08	% 100	145,36 €
ESP.ZBK. 11-16-09	% 50	71,48 €
GUZTIRA		1.199,26 €

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, alkatetzaren ebazpen bidez emandako laguntza hauen onarpenak berretsi egiten ditu.

Bestalde eta baita ere Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-



- 11-11-002 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea astean 5 egun eta egunean 2 ordu terdi. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35 izango da.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Juan Joxe Etxeberria Zalduek, uztaileko asteburuetan Lazkaon egindako "Joxe Mari Kerejetaren oroimenezko VII. Pala Txapelketa"ren antolaketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirol Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzar-
rrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berrehun eta berrogeita hamar (250 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogeitabost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziur-
tatzen dudalarik.

